

# Batuaren eraginez euskalkiak “gipuzkoartzen”

Euskalkien arteko desberdintasun handiak ohiko hizpide izaten ditugu euskaldunok. Azpi-titulurik gabeko pastorala nekez ulertuko du manexak, egia, baina batua, Gipuzkoa epizentro duela, egiten ari da bere lana, eta igartzen hasiak gara. Euskal gazteen hizkerek antz handiagoa dute haien aitite-amamenek baino. Pena, zenbait euskalki ari direla galtzaile suertatzen.



KOLDO ZUAZO

UNAI BREA

Koldo Zuazok *Euskalkiak*. *Euskararen dialektoak* lanean plazaratutako mapa. Bonapartek baino hamalau azpieuskalki gutxiago jaso du Eibarkoak. Nafar eskualde batzuen hizkera gipuzkerara lerratu izana ere adierazita dago.

**MAIATZAREN** azken egunean, Sagrario Aleman euskaltzain oso izendatu berriak sarrera-hitzaldia egin zuen, ohitura den legez. Etxaleku jaioterrian bete zuen eginkizun hori, Luis Luziano Bonaparte printzearen euskalki-mapetan goi nafarreraren eremuan agertzen den Imotz haraneko herrian. Koldo Zuazo eibartar hizkuntzalariaren sailkapen berriagoak, alabaina, gipuzkoarraren eta nafarreraren arteko eremu batean kokatzen ditu bai Etxaleku bai Imotz haraneko beste herri batzuk.

Sagrario Alemanen hitzek lagunduko digute mapak hobeto ulertzen: “Gazteek ezagutu arren ez darabilte, herritarrekin ari direlarik ere ez, *igan*, *iratzarri* eta *heldu* (etorri trinkoetan) aditzak. Instrumentalean zeta egiten dute eta ez ese, *berris*, *aldis*, *oines*, hemen bezala.

*Norantz* erabiltzen dute, ez *norata*, hemen bezala”.

Zaharrek modu batera, gazteek bestera. Imotzen, Nafarroako leku askotan bezala, gipuzkerak hartu du hein batean nafarreraren lekua. Ez da hain kontu berria: “Gure euskara kaxkarra zela eta -zioen Alemanek- zenbatetan ez ote dugu Etxalekun *det* erabili kanpotarren aurrean, gure arteko *dut* erabili orde, baita batuan *dut* onartu eta gero ere. (...) Zuzentasunaren izenean eta euskara batuaren aitzakian, batuan horrela izan gabe gainera askotan, nonahi egiten dira aldaketa hauek, eta euskararen indarra galtzen ari den herrietan errazago”. Garai bateko leloa da Tolosako euskara dela onena; gaur ia inork ez du hori esaten, baina ondo errotutako

idea da oraindik. Koldo Zuazok hala uste du behintzat.

**Hitz guztiak ez daude maila berean** “Behintzat” esanez amaitu dugu aurreko paragrafoa. Berdin erabilenezake “bederen”, baina orduan, irakurleren batek intentzio ezkutu bat sumatu lezake; bere nortasunaren marka utzi nahi duen nafar baten eskua akaso. Onenean, hiztegi zabalaren jabe dela erakutsi nahi digun kazetariaren pedanteria. “Behintzat” neutroagoa da, “batuagoa”.

Ustez, batuak arau zurrin batzuk ematen ditu ortografia eta aditz-joskeraren alorretan batez ere, eta gainerakoetan eskuzabalagoa da. Errealitateak besterik dio, alabaina. Izan ere, batuari esker Gipuzkoako euskara zabaltzen ari dela uste du Koldo Zuazok, eta ez Nafarroan bakarrik.

Baina horretan gelditzea gehiegi sinplifikatzea litzateke. Eraginak noranzko guztietan ematen dira. Esaterako, gipuzkoar askok –eta ez bizkaitar gutxiak– natural erabiltzen dute jatorriz Euskal Herriko ekialdekoa den “-ek” marka ergatibo pluralerako, halaxe ikasi dutelako eskolan. “Txakurrek hezurra jan dute”, eta ez “txakurrak”, gipuzke-raz esan ohi den bezala. Gipuzkoako-ak ingurukoei eta batez ere nafarrari eragiten die, batuak denei eta, gutxi-asko, denek elkarri. Beti ere, gazteengan igartzen da garbien forma berriak besarkatzeko joera, lehenagoak zokoratu.

### 25 azpieuskalki lehen, hamaika orain

Ondorioa ezinbestekoa da: euskalkien arteko aldeak ezabatzen ari dira. Koldo Zuazok orain dela bost urte proposatu zuen –eta orobat onartua izan den– sailkapenean, Bonaparterenean baino euskalki eta azpieuskalki gutxiago dago. Ordurako, eibartarrak iragarria zuen aldeak are gehiago murriztuko zirela. Baita asmatu ere. Azken urteak ikerkuntza lanari eman ostean, Zuazok analisi berria plazaratu du oraindik orain, *Euskalkiak. Euskararen dialektoak* liburuan. Bonapartek bereizi zituen zortzi euskalki eta 25 azpieuskalkie-tatik gaur egungo bost eta hamaika-ra igaro gara, hurrenez hurren.

Prozesua logikoa da. Euskalkien arteko desberdintasunak eskualdeen arteko harreman ezak eragin zituen eta ez da harritzekoa harreman hori handitzean hizkerak hurbiltzea. Arzoa da, Zuazoren ustez, prozesua ez dela modu naturalean gertatzen ari,



Zuazoren iritziz, komunikabide nazionalak eragin handia dute gure hizkeran. Oro har, erdialdeko formak zabaltzen dituzte, muturretako euskalkietakoak gutxietsiz.

azken urteotan hobera egin dugun arren. Garai batean ordea, euskalki batzuen ezaugarriak batuaren ateak itxi zitzaizkien, eta halakoxe uzta jaso dugu. Honenbestez, harritu egingo gintuzke ETBko esatariaren ahoan “berba egin” edo “izanen da”, batuaz erabat zilegi diren esamol-

### Prozesua logikoa da, baina ez da modu naturalean gertatzen ari, Koldo Zuazoren ustean

deak entzuteak, oso ezagunak diren kasu bakanak alboratuta. Bitxikeria bat bada gainera, Zuazoren esanetan: Iparraldeko esamoldeak errazago barkatzen dira Bizkaikoak baino. Kontuak kontu, euskalkien zenbait ezaugarri galtzen hasiak dira. Fenomenoa modu zehatzean aztertuko duen ikerketarik ez da egin oraino.

### Iparraldeak bere batua

Berdintze-prozesua modu nabarmenean eman da 1960ko hamarkadatik hona, Koldo Zuazok azpimarratzen duenez. Haren ustetan, eragile bi ditu batik bat: komunikabideak eta irakaskuntza. Baina dena ez da batasuna. Garai batean *esan* eta *erran* bereizten dituen isoglosa zen euskalkien arteko etenik handiena. Egun, Iparralde eta Hegoaldearen artekoa da. Hegoaldeko hai-zeek Iparraldeko jarduna apur bat kutsatu badute ere, alde bakoitza bere bidea egiten ari da, nor bere erdara bidaide, bide batez esateko. Hala, batua bat ez, bi ditugu, Iparraldeak berea garatu baitu euskarazko irratien, ikastolen eta gau- eskolen indar bateratzaileari esker. Hori da zuberotar batek lapurtar batekin darabilen hizkera, eta hegoaldeko aldenduz doa etengabe. Alderantziz ere bai, prefosta. ■

